

Landetako liburutegia

—Kaixo, Belle! Aspaldiko!

—Kaixo, Atlanta! Begira, Koldo eta Itziar dira hauek, liburutegia ikustera ekarri ditut.


Hura zen liburutegia hura! Hezurrez egindako apalak, sailez sail txukun asko antolatuak, eta era eta kolore guztietako liburuz beteak.

—Zerenak dira hezur horiek? —galdetu zuen Koldok jakin-minez.

—Balearenak —erantzun zion Atlantak.

—Balearenak?

—Bai. Aspaldi, orain dela ehunka urte, balea asko ibiltzen zen ur hauetan. Izan ere, krustazeo txikiz josita dago inguru hau eta animalia itsastar horiek jaki gozo-gozoak dira baleentzat. Zahartzen zirenean hiltzera etortzen ziren hona —erantzun zion Atlantak mutikoari.



Orain dela mende batzuk —jarraitu zuen Bellek—, gizakiak kupida gabe hasi ziren baleak harrapatzen. Balea asko hil

zituzten eta orduan hil ez zituztenek beste itsaso batzuetara egin zuten alde.

—Dena dela, hemen baduzu liburu bat oso polita, baleei buruzkoa. Kontu horiek guztiak aipatzen ditu. Hantxe dago, Natura jartzen duen sailean—esan zion Atlantak.

Iristaka hurbildu nintzen sail hartara eta berehala topatu nuen liburua. Oso liburu polita zen, bai, eta interesgarria ematen zuen oso.

Belle, Landetako sirena (moldatua) Mikel GarMendia Begiko

Erantzun.

Baleak orojaleak, haragijaleak edo belarjaleak dira?

- a) Orojaleak dira, oro har
- b) Haragijaleak
- c) Belarjaleak

Zer da orojalea?

- a) Omnívoro (denetarik jaten duena)
- b) Herbívoro (landareak jaten dituen)
- c) Carnívoro (okela jaten duena)

Zer da belarjalea?

- a) Omnívoro
- b) Herbívoro
- c) Carnívoro

Zer da haragijalea?

- a) Omnívoro
- b) Herbívoro
- c) Carnívoro

Non bizi dira baleak?

- a) Ur gazian
- b) Ur gezan
- c) Ibaietan

Zergatik gizakiek ehizatzen zituzten baleak?

- a) Ondo pasatzeko
- b) Elikagaiak eta beste materiak eskuratzeko
- c) Etxera eramateko

Zergatik gaur baleak ehizatzea debekatuta dago leku askotan?

- a) Gutxi gelditzen direlako
- b) Gaur ez dira beharrezkoak
- c) Inoiz ez dira ehizatu

Zein da balearik haundiena?

- a) Balea urdina
- b) Cachalote
- c) Orca